

...EZ NIRE KERIK IRENTSI...

...ez nire kerik irentsi...

Kea dario egunero egunero antzera, mahai gainean uzten diodan platerari. Eta egunero egunero moduan keak daramatza nire barreneko desiorik bortitzenak.

Atean giltza sartzean, nire begiak zabaltzen ditu. Platereko kea ahoan sartzean, nire desioak jaten ditu.

Gogoan dut, nire keak bere kearekin batera bide bera egiten zuen garaia. Zorioneko nintzen. Edo hori uste nuen.

Gozamena da elkarbanatzea. Parekatu ezin daitekeen gustua.

Ez dakit nork eman zion su pilatutako egur metari. Ez dakit zerk piztu zuen, ez noiz.

Ke beltz eta lodia. Su urdinaren lilurak ez du kea edertzen eta saiatu arren, batek garrari miresmenez begiratzen badio ere, besteak ezin kerik xurgatu.

Abesti batek kantatzen duen bezala "*...euria izan nahi dut, baina ur tanta bat naiz...*". Ur tantak ez du erraza egur meta blai uztea eta ur tanta, airera dantzan eroriko ez ote den beldur da.

(ENE! ENE! Irten da! Hitz bat bestearen atzetik, kate bat. Esaldi bat. Hausnartzen ari natzaizu idazten, baina giltza sumatzearekin batera IRTEN DA... Ez dakit gai izango naizen hitz hori barnean itozteko. Arnasteko ere betarik ez emateko. Gerizpean lurperatzeko. Akabatzeke. Berriro ere astiro astiro jarraituko dut hitzen desfile hau gauzatzen. Saiatzen.)

Norbaitek esan dit, duela jatordu gutxi, ez dudala zertan platerik jarri mahai gainean. Ez dudala zertan kearen ametsean ezkutatu.

Nik, azken urte luze hauetan antzera, norbaitek goizeroko botoia sakatu balu bezala; nire minak sortzen dituen ohea egin, nire malkoak ureztatutako beste ohea, pisuko zorua garbitu eta janaria prestatu dizut.

Bakoitzak, sortzez du zeregina bereganatua. Batzuk erosteko sortu diren bezala beste batzuk saltzeko sortu dira. Batzuk margotzeko sortu diren bezala besteak ezabatzeke. Batzuk zikintzeko, besteak garbitzeko. Zu min emateko eta ni... ni, zu... zu ~~maitatzeko~~ jasateko.

Urte luzez ezkutaturik egin genion aurre iluntasunaren esku luzeari. Gure artekoak ez zuen egunsentiarekin batera esnatu eta arratsean goxo goxo lokartzeko eskubiderik Benetan preziatua zen gure arteko altxorra eta galtzekoa gehiegizkoa. Hori sinistu nuen. Hori sinistu nahi nuen. Horrela zenaren ustea nuen... USTEAK ERDI USTEL!

Edozein kale izkina ilun bilatzen genuen gure fereka eta goxatze partikularra gauzatzeko. Mahai azpian izaten genuen gure eskuen dantza-jolas partikularra.

Orain, garai haiek oroitzean, ikusmenaren zentzua galdua ote nuen galdetzen diot nire buruari.

Gaur ere, begiak itxiak ditudala momentu kitzikagarri haiek datozkit gogora. Beroak. Baina zuk baduzu nire ametsean giltza sartu eta, blaust!!, izotz bilakatzeko boterea.

Gaur egun, sarriegitan entzun dut emakume batek pairatu behar izan duen eleberri partikularraren sinopsia. Nik ere liburu bera, komiki latz bera irakurtzen dut egunsentitik egunsentira.

Baina zaharrak berri ditut oraingoan ere. Lehen ezkutuan dantzatutakoak ezin aireratu. Izan ere irratiko eleberri horien eta nirearen artean badago pertsonaiek ezberdin egiten duten funtsezko gidoia.

Nire kea jaten didan bikotekidea, ni bezala, emakumea da.

Amagoia Osinalde Mendibaso